

## ‘Mendizalearen Hiztegia’ argitaratu du Ostadar Mendi Taldeak

JONMIKEL INTSAUSTI lazkaotarrak hiru zaletasun batu ditu lan hone-tan: mendizaletasuna, informatikari lanbidea eta euskaltzetasuna. Sei urtez jardun du lanean buru-belarri. Ez da bakarrik aritu, bidelagun izan ditu Ostadar Mendi Taldeko kideak, Urretxu-Zumarragako Zintzo Min-tzo euskara elkarterko kideak eta mendiari lotutako hainbat esparru-tako adituak.

6.000 termino bildu dituzte hiz-tegian eta euskaratik gaztelaniara, eta alderantziz, kontsulta daiteke. *Mendizalearen Hiztegia* ez dute pape-rean argitaratuko, besteak beste horretarako diru baliabiderik ez dutelako. Alabaina, sarean dago [www.ostadar.org](http://www.ostadar.org) webgunean.

Intsaustiren esanetan, mendia Ostadarrekoentzat eremu zabala da eta horregatik esparru ugari hartu dituzte kontuan: botanika, eskalada, goi mendia, geografia, espeleologia eta abar.



Jonmikel Intsausti.

Hiztegia elikatzeko hainbat itu-rritara jo dute, hala nola, Hiztegi Batua, Elhuyar, UZEI eta Wikiped-ia. Hala eta guztiz ere, iturririk aberatsena hogeitaz urtean Ostadar Mendi Taldeak egindako mendi-ibilbideez idatzitako dokumentuak izan dira.

Hiztegia letraz letra kontsulta daiteke, bilaketa askea ere egin dai-teke, eta osorik pdf-formatuan ere badago.



## 86 tesilariren txioak ikerkuntza euskaraz aldarrikatzeko

UEUK joan den asterako egin zuen deialdia: ea sei txiotan zure tesia kontatzeko gai zaren. Erronka poli-ta, sakoneko helburua berriz euska-raz egindako ikerkuntza lanak pla-zara ateratzea.

86 ikerlarik erantzun zioten UEU-ren deia. Parte-hartzaileen %35ak tesia defendatua du eta gainerakoak tesia egiten ari dira. Jakintza alor askotako tesiak txiokatu ziren: Kimi-ka, Soziologia, Arkitektura, Hezkun-tza, Psikologia, Fisika eta beste. Eki-menak 98.096ko audientzia izan zuen eta 331.737 aldiz barreiatu zen #txiotesia traola Twitterren.

## EKONOMIAREN TALAIA • TERMOMETROA

### Beste “tartakadak”

YOLANDA BARCINA Nafarroako Gobernuako presidenteari 2011n Okzitaniako Tolosako ekitaldi publiko batean AHTren kontrako hainbat militanteak jaurtita-ko tartakadak iragan asteko protagonista izan dira. Balizko lau “erasotzaileak” Espainiako Audientzia Nazionalean epaitu dituzte eta 5 eta 9 urte arteko kar-tzela zigorrak eskatu dituzte beraientzat. AHTren obrak gelditzea eskatzeko egindako ekintza horrek ez du Frantzian inolako zigor penalik izan. Baina Espai-nian fiskaltzak “autoritatearen kontrako atentatua” izan dela esan du, eta Barcinaren arabera “nafar guz-tien kontrako eraso”.

Badakigu kode penalak arautzaileek ezartzen dituz-tela, aldiari aldiko gobernuak. Hauek, orokorrean, kapitalismoa kudeatzen dute eta honen interesak defendatzen dituzte. Kapitalista gutxi igarotzen da kartzelatik, eta igarotzen direnak, azkar atera ohi dira. Gure gizartearen badaude beste “tartakada” batzuk, odoltsuagoak eta biolentoagoak, baina ez dira Audientzia Nazionalean epaitzen. “Tartakada” itzela da, hain zuzen, inora ez daraman AHTa herritarrei

inposatzea eztabaidarik gabe, milaka milioi euro ari baita kostatzen. Nafarroan 45 milioi euro xahutu behar dituzte, interesak aparte. “Tartakada” horren ondorioz finantzazioa falta da zerbitzu sozialak bermatzeko: hezkuntza, ongintza, menpekotasuna, lan-gabezia, pentsionistak... CANen egin duten espolia-zioa eta kudeatzaile politikoek dietak eta gain soldatak ere “tartakada” ederra dira. “Tartakada” da Nafarro-an 60.000 lagun pobrezian egotea, eta langabezia larriagotzea: 55.500 laguni eragiten die, herrialdearen biztanleria aktiboaren %18,2ri. Euskal Herriko batez bestekoa %15,9 da. “Tartakada” horiek arduradunak dituzte: gobernuak, multinazionalak, enpresariak, bankariak, finantza espekulatuzaileak... Eta hala ere, herritarrek pasteletzko tartakada baino, langabeziare-na, pobreziaarena, miseriaarena eta heriotzarena jaso-tzen duten bitartean, horren erantzuleak lasai asko dabilta! Ez dira merengezko-ak, Barcinak jaso zituen bezalakoak.

Juan Mari Arregi

